

II. ERANSKINA

MEREZIMENDU-LEHIAKETAREN BIDEZKO DEIALDIAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEA,
ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO PROZESU
BEREZIAREN BARNEAN

I. HAUTAPEN-PROZESUA

Deialdia egin duen erakundea:

Lanpostuaren izena:

Deialdia: NAO-n argitaratu zen, data honetan:

II. DATU PERTSONALAK

Izena eta abizenak:

NANa:

Helbidea:

1. telefonoa: 2. Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

JAKINARAZPENETARAKO LEHENTASUNEZKO BIDEA:

Bitarteko elektronikoak

Zehaztutako helbidea

Bitarteko elektronikoak aukeratzen badituzu, bide hori erabiliko da eskabide honekin lotutako edozein komunikazio edo jakinarazpen egiteko, eta jakinarazpenak behar bezala egindakotzat joko dira eta behar diren ondorioak izanen dituzte, harik eta berariaz jakinarazten duzun arte jakinarazpenak posta-helbidearen bidez egitea nahi duzula.

III. ADITZERA EMATEN DUT

- Eskabide honekin batera aurkezten ditudala merezimenduen autobaloraziorako agiria eta merezimenduen frogagirien kopiak.
- Desgaitasuna aitortua dudala, % (e)koa, eta desgaitasunaren ziurtagiria aurkezten dudala.
- Euskararen jakite-maila egiaztatzeko agiririk aurkeztu ezin dudanez, eta nahitaezkoa edo baloragarria denez, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuak eginen dituen egiaztapen probetara aurkezteko konpromisoa hartzen dut.

IV. ADIERAZTEN DUT

1. Betetzen ditudala deialdiaren oinarrietan hautapen-prozesuan parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak.
2. Ez nagoela kondenatua dolozko delitu bat dela kausa, ez eta administrazio publiko baten zerbitzutik bereizia ere, eta ez nagoela ezgaitua eginkizun publikoetan aritzeko.
3. Ez dudala indarreko xedapenetan ezarritako ezgaitasun edo bateraezintasunerako berariazko kausarik.
4. Alegatutako merezimenduak eta haien frogagirik errealitatearen isla zehatza direla.

ESKATZEN DUT eskabide honetan aipatzen den deialdian onar nazatela.

Eguna eta sinadura

Adierazpenaren egileak baimena ematen dio toki erakundeari, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan xedatutakoarekin bat etorri, espedienteen eta tramiteetan jasota dauden bere datuak, trata daitezten, fitxategi automatizatu batean sartzeko, fitxategi horren helburua baita datu pertsonal horiek sartzen dituzten organoei dagozkien kudeaketa, egiaztapen eta jarraipen prozedurak kontrolatzeko eta hobetzeko jarduketak erraztea; eta badaki, aipatu lege organikoan xedatutakoaren arabera, datu horiek ikusteko, zuzentzeko, ezabatzeko eta haien aurka egiteko eskubideak erabiltzeko, toki erakundearengana jo dezakeela, idatziz, eskatzailearen nortasunaren fede ematen duen frogarekin, eta erreferentzia gisa "Daturen babesa" paratuta.